

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasunbideko larrialdi-zerbitzuek 320 artapen egin dituzte Sanferminak hasi zirenetik

Artapen gehienak igandean, hilak 7, egin ziren, 100, eta artatzeko arrazoi nagusia traumatismoak eta zauriak (192) izan dira

Jueves, 11 de julio de 2013

Osasunbideko arreta espezializatuko sarearen larrialdi-zerbitzuek, San Martin doktorea anbulatorioan eta Nafarroako ospitaleguneko ospitaletan (lehenago Nafarroako ospitalea eta Virgen del Camino ospitalea) kokatutakoak, guztira 320 mediku-artapen egin dituzten San Ferminetako jaietako ezbeharrekin lotuta, festen lehen bost egunetan.

Zifra horren barnean ez dira sartzen entzierroan gertatutako ezbeharrengatik ospitaletako larrialdi-zerbitzuetan traumatismoen ondorioz egindako 15 artapenak.

Bi ospitaleek guztira 152 pertsona artatu dituzte eta San Martin doktoreak, 168. Hilaren 7an, igandea, egin ziren artapen gehien, 100, eta haren atzetik, hilaren 8a dago, astelehena, 62 artapenekin. Gainerako egunetan, laguntza-maila asko jaitsi zen: 39 hilaren 9an, 33 hilaren 10ean eta 28 uztailaren 6an.

Patologiei dagokienez, laguntza eskaintzeko arrazoi nagusia traumatismoak eta zauriak izan dira (192) eta baita erasoak ere (56). Neurri txikiagoan, intoxikazio etilikoagatik egindako artapenak (23), intoxikazioak drogengatik (5), eta elikaduraren inguruko toxiinfekzioak (2), eraso arma zuriarekin (1) eta beste artapen batzuk (41)

Osasun-garraioko zerbitzuek 367 irteera izan dituzte. Mobilizazio handieneko eguna hilaren 7a, igandea, izan zen, 132rekin, eta, ondoren, hilaren 8a, astelehena, 90ekin. Gainerako egunetan, banaketa ondorengo izan da; 67 hilaren 6an, 56 hilaren 9an eta 52 10ean.